

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



31. Informazio Buletina
2009ko Otsaila





NABARMENDU BEHARREKOA

Europako Batzordea krisi ekonomikoaren aurrean

Europako Batzordeak, udaberriko Europako Kontseiluak egindako Goi Bilerara bidalitako jakinarazpenean, Batasuneko lider guztiak gonbidatu zituen krisi ekonomikoaren aurkako borroka modu koordinatuan egiteko Europako ekintza sendotzera, benetako ekonomiari eta enpleguari dagoeneko eskaini zaion laguntza zabalara oinarri hartuta.

Komunikazio horrek 2008ko udazkenetik hartutako neurriak azaltzen ditu eta Europako eta nazio bakoitzaren arabera (eranskinean agertzen direnak) neurrien eta egonkortzaile automatikoen bidez ekonomiari egin zaion zerga arloko babes orokorra, 2009-2010 aldiari dagokionez, BPGren % 3,3koa izan dela nabarmentzen du.

Eta Batzordeak Larosière Txostenean oinarritutako finantza-sistemaren erreforma proposatzeaz gain, Europar Batasunean kontrol askoz handiagoa eta erregulatuzaile nazionalak betetzen duten rola mantentzea bateratzen duen ikuskapen-sistema eskatu du.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/commission_barroso/president/pdf/press_20090304_en.pdf

POCTEFA Programa: 26 proiektu onartu dituzte lehen txandan

Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Lurralde Mailako Lankidetzaren Programaren Programazio Batzordeak, abenduaren 11n egindako bileran, 26 proiekturi eman zien aldeko iritzia proiektuak onartzeko lehen txandan. Proiektu horietako hiruren zuzendariak hauek dira: Inasmet-Tecnalia, Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoa eta Donostiako Zinemaldia.

Proiektuak online erregistratzeko bigarren txanda otsailaren 5ean zabaldu zuten eta hautagaitza berriak aurkezteko epea martxoaren 31n amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://www.poctefa.eu/>



Babes soziala eta gizarteratzea 2009

Aipatutako Europako Batzordearen babes sozialari eta gizarteratzeari buruzko txosten-proposamenak aipatzen duenez, Europako biztanleen % 16 oraindik ere txirotasun-arriskuan dago. Txirotasuna ekiditeko babesik onena kalitateko enplegua da; dena den, langile txiroen tasak (% 8) agerian uzten du lanpostu guztiek ez dutela berme hori eskaintzen.

Ikuspegi ekonomikoek izan duten erabateko aldaketa dela eta, politika sozialaren ekarpena ezinbestekoa da. Politika sozial egokiak aplikatzeak gizarte-egoera ahulenean dauden taldeen eragin sozial negatiboa arintzeko ez ezik (krisiaren ondorioz larrienak jasango dituzten biktimak euskarri ekonomiko nagusitzat laneko merkatuan eta gizartean desabantaila-egoera bizi dutenak izango dira), krisiak ekonomia osoan izango dituen ondorioak leuntzeko ere balioko du. Gizarte-babesa, gastu publikoari dagokionez, oinarritzko elementu egonkortzaile kontraziklikoa eta automatikoa da.

Besteak beste, laneko merkatuko politika aktiboak oinarri dituzten flexisegurtasuneko neurri egokiak hartzea proposatzen du trantsizioak errazteko, iraupen luzeko langabezia prebenitzeko, eskulanaren eskaintza erregulatzean erretiro aurreratua erabiltzea ekiditeko, gaitasunak hobetzeko eta trantsizio-aldiak bermatzeko.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0058:FIN:ES:PDF>





KOHESIO-POLITIKA

Egitura funtsak erabiltzeari dagokionez, malgutasunak gora egin du 2000-2006

Europako Batzardeak egitura-funtsen malgutasuna handitu egin du finantza-krisiari erantzuna emateko. Hori dela eta, 2009ko ekainaren 30era arte luzatu dute epea herrialdeek 2000-2006 epeko baliabideak erabil ditzaten eta % 2tik % 10era handitu dute malgutasun-marjina aldi horretako lehentasuneko ardatzen arteko finantzaketa transferitzeko.

Era berean, herrialdeak bultzatu ditu "errendimendu altuko" sektoreetan eta neurrietan arreta jar dezaten: energia-eragingarritasuneko inbertsioak egin eta, besteak beste, eraikuntza eta automobilgintzako sektoreak bultzatzeko helburuarekin teknologia garbiak babes ditzaten.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/09/310&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

IEB 2009 Foroa: mugigarritasuna eta hiri iraunkorrak finantzatzea

Martxoaren 12an eta 13an 2009ko Inbertsioen Europako Bankuaren Foroa egingo dute Bartzelonan. Foro horren oinarria Europan mugigarritasun iraunkorra eta hiri iraunkorrak finantzatzeko erronka da.

Erronka horren abiapuntua azpiegiturek eta hiriek aldi berean lan egin behar dutela dioen ustea da, horri esker, Europako hiri eta eskualde guztiak aldatzen ari diren biztanleentzako eta inbertsioentzako irisgarriago izan eta irisgarritasunaren zimenduak jarri ahal izateko.

Horrez gain, krisi ekonomikoaren erdi-erdian gauden honetan, beharrezkoa da inbertsio-aukera eta mekanismo berriak sortzea Europako jarduera bultzatu ahal izateko.

Informazio gehiago:

<http://www.eib.org/infocentre/forum/programme/index.htm>

Programa operatiboen urteko azterketako urteko topaketak

Urtarrilaren 29an eta 30ean, Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioan 2008ko Urteko Topaketak egin zituzten Komunitateko Egitura Funtsen Kontrolerako urteko azterketaren inguruko arauzko xedapenak betez. Topaketa horietan izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.

Topaketak programen urteko azterketaren inguruko 1083/2006 araudiko 68. artikulua betez egin zituzten: "urtero, egikaritzearen inguruko urteko txostena aurkeztu ostean, Batzardeak eta kudeaketako agintaritzak programa operatiboa gauzatzeko prozesuan egindako aurrerapenak, aurreko urtean lortutako emaitza nagusiak, finantza-exekuzioa eta beste faktore batzuk aztertuko dituzte horren egikaritzea hobetu ahal izateko".



Aldaketa ekonomikoaren aldeko eskualdeak

Otsailaren 16an eta 17an, "aldaketa ekonomikoaren aldeko eskualdeak" izeneko urteroko konferentzia egin zuten eta topaketa haren baitan, "eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren eragileak" izeneko txostena aurkeztu zuten. Hitzaldi horien baitan, finantza-krisia, klima-aldaketa eta energia-arazoak gainditu ahal izateko sarean eskualde mailako lankidetzaren behar dela nabarmendu zuten.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/networking/programme_en.cfm?nmenu=4

Era berean, kohesio-politikak babestutako eskualdeko proiekturik berritzaileenei eta eragingarrienei emandako "Regio Stars" sariak banatu zituzten. Sariak eskualde hauek aurkeztutako proiektuei eman zitzaizkien: Réunion, Valonia, Gales, Ipar Renania-Westfalia eta Grezia.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperation/interregional/ecochange/regiostars_09_en.cfm?nmenu=4





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Liburu Berdea: garraioaren europa barneko politika berrirantz

Europako Batzordeak RTE-T politika (Garraioaren Europa Barneko Sarea) berrikusteko prozesua hasi du Liburu Berdearekin. Bertan laburtzen ditu egungo hausnarketak eta ekarpenak egiteko gonbidapena egiten du, legegintzako edo beste era bateko proposamenak aurkeztu aurretik.

Politika berri horrek, orain arte baino nabarmenago islatu beharko ditu Europako proiektuak, ez soilik garraioaren sektorean, baita orokorragoa den testuinguru politikoan, sozioekonomikoan, ingurumenekoan eta erakunde arlokoan ere. Helburu horiek abiapuntutzat hartuta, Batzordearen ustez, galdera hauek egiteko garaia iritsi da: batetik, helburuak zergatik erdietsi dituzten partzialki soilik eta, bestetik, helburu horiek oraindik ere nahikoa ote diren etorkizunean sortuko diren arazoei erantzunak aurreratzeko eta zer baliabide den beharrezkoa RTE-Tren politikako etorkizuneko helburuak erabat erdiesteko.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0044:FIN:ES:PDF>

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna 2009

Txostenak 2008. urtean gizon eta emakumeen berdintasunaren alde Europar Batasunean gertatu ziren aurrerapen nagusiak bildu eta etorkizuneko erronkak nabarmentzen ditu.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna funtsezko gakoa da hazkundera eta enplegua lortzeko Europako estrategiak arrakasta lor dezan. Gainera, eskulan-gabeziari eta prestakuntzako behar berriei aurre egiteko beharrezko ekarpena da.

Beste alderdi batzuen artean, emakumeek beren gaitasuna mailarik handienera garatzea eta prestatuta dauden enplegu eta postu horietara sarbidea izatea eragozten dieten oztopoek irauten dutela aipatzen du. Era berean, txostenak nabarmentzen duenez, laneko eta familiako bizitzaren arteko oreka aurkitu ahal izateko zailtasuna da emakumeen enplegurako eta beren karrera garatzeko oztopo nagusietako bat.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0077:FIN:ES:PDF>



Klima aldaketaren politika 2050

Europako Parlamentuak otsailaren 4an onartu zuen "2050: Etorkizuna gaur hasten da - klima-aldaketa arloko EBko etorkizuneko politika integraturako gomendioak" izeneko ebazpena. Bertan azaltzen dira komunitateko politikarako helburuak klima-aldaketari aurre egiteko. Ebazpen horrek garatutako herrialdeetan berotegi-efektuko gasen igorpena gutxitzeak duen garrantzia nabarmentzen du, 1990eko mailak erreferentziazat hartuta: % 25 eta % 40 artean 2020. urterako, eta % 80 2050erako.

Horrez gain, funtsezkoak diren sektore ekonomikoetan hartu beharreko neurriak biltzen ditu eta hezkuntza arloko neurriek duten garrantzia nabarmentzen du herritar guztiak politika horretan txertatu ahal izateko.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=TA&reference=P6-TA-2009-0042&language=ES&ring=A6-2008-0495>

Soiltze administratiboa mikroenpresetarako

Europako Batzardeak proposamena aurkeztu du 2010. urtean Europar Batasuneko araudiaren arabera kontularitza eramateko derrigortasunak bertan behera uzteko. Betebehar hori mikroenpresek bete behar dute eta informazioaren ingurukoa izaten da sozietateen zuzenbideari buruzko laugarren arauak zehazten duenaren arabera.

Mikroenpresak hiru ezaugarri hauetako bi betetzen dituztenak dira: 500.000 euro baino gutxiagoko balantzea, 1 milioi euro baino gutxiagoko negozio-zifra eta soldatapeko 10 pertsona.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0083:FIN:ES:PDF>

2010erako urteko estrategia politikoa

Europako Batzardearen urteko estrategia politiko horrek 2010erako agenda politikoa zehazteko bidea prestatu eta erakunde arteko elkarriketa abiarazten du datorren urteko lehentasunen inguruan.

Dena den, egungo Batzardearen ardura da erakundearen programazio eta plangintza estrategikoaren sistemaren jarraipena bermatzea; izan ere, kontuan hartu behar da 2010. urtean Batzarde berria arituko dela lanean. Hurrengo Batzardearen lana izango da lehentasun politikoak berrikustea helburu estrategikoak oinarri hartuta. Jarraian, programa operatibo bihurtu beharko ditu lehentasun horiek 2010erako laneko programa prestatzen duenean.

2010erako lehentasun politikoak hauek izango dira: Susperraldi ekonomikoa eta soziala, klima-aldaketa eta Europa iraunkorra, Herritarra kokatzea lehen tokian, Europa munduko bazkide moduan eta Araudi hobea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0073:FIN:ES:PDF>



E-LIBURUTEGIA

Europar Batasuneko funtsezko estatistikak 2009

Eurostaten laburpen-argitalpena. Bertan, Europar Batasuneko eta kide diren estatuetakoko estatistika nagusiak agertzen dira.

Argitalpen horren edukia bederatzi atal nagusitan egituratuta dago: ekonomia eta finantzak; biztanleria eta bizi-baldintzak; industria, merkataritza eta zerbitzuak; nekazaritza, basogintza eta arrantza; nazioarteko merkataritza eta garraioa; energia eta ingurumena; zientzia eta teknologia; eta eskualde mailako azterketa.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-EI-08-001/EN/KS-EI-08-001-EN.PDF

Europako berrikuntzaren monitoringa 2008

Txostenak berrikuntzaren emaitzetan izan diren aurrerapenak aztertzen ditu Europar Batasuneko 27 estatuak eta mundu mailako erreferentziako beste 12 herrialde kontuan hartuta.

Herrialdeak lau mailatan sailkatuta agertzen dira berrikuntza arloan lortu dituzten emaitzen arabera. Herrialde liderren taldea hauek osatzen dute: Suitza, Suedia, Finlandia, Alemania, Danimarka eta Erresuma Batua.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://www.proinno-europe.eu/admin/uploaded_documents/EIRP2008_Final_merged.pdf

Automobilgintzaren krisia Europan

Automobilgintzaren sektorea da Europako industria esanguratsuenetako bat eta hazkundearen, esportazioen, berrikuntzaren eta enpleguaren eragilea. Horren eragina sektore oso ezberdinen bidez sartzen da eta mugaz haraindiko eragina bereziki garrantzitsua da, hornitzaileek, fabrikatzaileek eta eratorritako salmentako eta mantentze-lanetako zerbitzuek elkarrekiko interesa duten sarea osatzen baitute eta eragin hori Europar Batasuneko kide diren estatu guztietara zabaltzen baita.

Ekonomia-krisiak sektore horretan zehazki presio nabarmena eragin duenez, dokumentuak Europak automobilgintza-industria babesteko neurriak nola susta ditzakeen proposatzen du.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0104:FIN:ES:PDF>



ADIERAZLEAK

Gipuzkoako eskualdeek I+G arloan egindako gastua

Eustatek prestatutako ikerkuntzako eta garapen teknologikoko jardueren estatistikaren (2007) arabera, Gipuzkoako lau eskualdek I+G arloan egiten duten gastua (BPGren %aren arabera) Europako Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa da. Hauek dira eskualde horiek: Debagoiena, Debabarrena, Donostia eta Goierri. Horiek dira, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazlean nagusi.

Saillkapen horren beste muturrean daude Tolosaldea eta Bidasoa, autonomia-erkidegoko azken tokietan baitaude I+G arloan egiten duten gastu baxua dela eta.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elementos/ele0004900/not0004989_c.html

Gipuzkoako hazkunde ekonomikoa

2008ko laugarren hiruhilekoan, Gipuzkoako ekonomiak % -1,2ko hilabete arteko hazkundera izan zuen.

Jarduera ekonomikoaren murrizketa hori 27 estatuak osatzen duten Europar Batasuneko batez bestekoa baino baxuagoa da (% 1,5). Batasuneko herrialdeen artean, nabarmendu beharrekoa da Alemaniako atzerapena (% -2), Frantziakoa (% -1,2) eta Espainiakoa (% -1) baino handiagoa izan baita.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elementos/ele0005000/not0005001_c.html